

# Jatorrizkoa, bikoiztua ala azpitulatua?

(Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua)

Sekuentzia honetan, Aintzane Gamiz eta Aintzane Crujeiras bikoiztaileak gertutik ezagutzeko aukera izango dugu, eta beraien bitartez bikoiztaileen lanbidea ere bai. Horretarako, ariketa hauek egin ditzakezu:

- Bideoa ikusi aurretik, erantzun binaka galderari.
- Ikusi bideoa eta aukeratu aipatutako ezaugarriak zeintzuk diren.
- Irakurri testua eta lotu hitzak defnizioekin.
- Erantzun binaka proposatutako galderari.



## 1- Bideoa ikusi aurretik, erantzun galdera hauei:

**Nola ikusten dituzu filmak? Zein ohitura duzu?** Bikoiztuta, jatorrizko bertsioan azpituluekin...

**Bikoiztuta edo azpitulatuta ikusi duzun azken filma zein izan da? Zein hizkuntzatan?**



2- Orain, elkarrizketa baten bideoa ikusiko duzu. Bertan, bikoiztaile izateko hainbat dohain edo ezaugarri aipatuko dituzte Aintzane Gamizek eta Aintzane Crujeirasek. Ikusi bideoa eta esan zein ezaugarri behar dituen bikoiztaile batek eta zeintzuk ez

Hementxe duzu entzungai: <https://labur.eus/jaSyr>

|   | EZ | BAI |  | EZ | BAI |
|---|----|-----|--|----|-----|
| Ahotsa  |    |     | Jatorrizko bertsioa eraldatzeko baliabideak izatea |    |     |
| Bikoiztaile graduiko ikasketak unibertsitatean egitea |    |     | Ahotsa kokatzen ikasi behar da                     |    |     |
| Interpretazioa  |    |     | Jatorrizko bertsioarekin leiala izatea             |    |     |
| Hainbat hizkuntzatan hitz egitea                      |    |     | Hainbat erregistro egiteko gaitasuna               |    |     |
| Teknika   |    |     | Norberaren erregistroa ongi menderatzea            |    |     |
| Eginez ikasten den ofizioa da, pixkanaka              |    |     | Gorputzaren kokapena                               |    |     |

## Euskaraz bikoiztearen abenturak eta kalenturak

Marrazki bizidunetan, telesailetan edo filmetan **jatorrizko ahotsak** ordezkatu, eta beste hizkuntza batean gainean grabatzeari bikoizketa deitzen zaio. Ohituta gaude kanpoko aktoreen ahotsak gaztelaniaz, frantsesez edo euskaraz bikoiztuta ikusten; batzuetan, **bikoiztutako bertsioa** ikusten ari garela ahaztu ere egiten dugu. Horren erantzuleak bikoiztaileak dira: **irakurketa-estudioetan**, jatorrizko ikus-entzunezkoaren gainean, produktua beste hizkuntza batean grabatzen dute. Aintzane Gamiz eta Aintzane Crujeiras Bikoiztaile Euskaldunen Elkarteko (Bieuse) kideak dira, eta beraiekin egoteko aukera izan dugu lanbidearen gorabeherei buruz hitz egiteko.

### Bikoizteko prozesua

Jatorrizko ikus-entzunezkoa itzuli eta egokitu egin behar da, bikoiztailearen eskuetara iritsi aurretik. “Askotan ez dakigu zer bikoiztu behar dugun estudioira iritsi arte: zer pertsonaia izango garen, eta zer pelikula, telesail edo marrazki bizidunetakoia izango den. Momentuan esaten digute”, kontatu digu Crujeirasek.

Gamizek, berriz, **testuaren itzulpenak eta egokitzapenak** duen garrantzia azpimarratu digu: “Hor hasten da prozesua. Filmeko edo telesaileko **hizkuntza ortopedikoa** bada, ez ditu ikusleak erakarriko; eta egokitzapena gaizki egin bada, ez da sinesgarria izango. Gure lana ere asko errazten du hori ongi egin egoteak”. Biek ala biek **jatorrizko bertsioa** ahalik eta gehiena hurbiltzen saiatzen direla esan digute, beraiek ere aktore-lanetan jardun dutelako. “Aktoreek eta zuzendariak modu zehatz batean egin dute lan, eta modu berean jardun behar dugu guk ere”, zehaztu digu Crujeirasek.

Take (hartualdi) izeneko unitateetan banatzen dute lana: bi edo hiru aldiz entseatzen dute take bakoitza grabatu aurretik: “Testua, telebista, denbora, pertsonaiaren ahoa, besteek noiz hitz egiten duten... Hainbat xehetasun hartu behar ditugu kontuan...”, adierazi digu Gamizek. Bere ustez, bikoiztea gidatzea bezalakoxea da: “Hasieran zaila da, baina gero automatikoki egiten ikasten dugu. Gainera, teknologia berriek eta teknikak asko lagundu digute, horiek gabe motelago egingo genuke gure lana”.

### Azpitituluak vs bikoizketa

Bikoizketa motelago edo azkarrago egin, duela hogeitun urte edo orain aritu, bada askotan errepikatu den eztabaida bat: filmak bikoiztu ala **jatorrizko bertsioan** ikusi azpitoluekin. Horregatik ez dugu aukera hau pasatzen utzi, eta Bieuseko kideei horri buruz galdetu diegu. Biek “osagarri” hitza aipatu digute. Hauxe esan digu Gamizek: “Euskaraz bikoiztu eta azpidatzi daiteke. Hizkuntza gutxitua den heinean, ezin dugu hizkuntza hegemonikoaren politika bera erabili. Gure hizkuntza mantendu nahi badugu, ezin dugu ahoskera galdu. Nire ustez, bikoizketa euskara sustatzeko erreminta bat da”.

Crujeirasek teknologia aipatu digu: “Gaur egungo telebistan botoi bat sakatu besterik ez da egin behar. Nahi duenak **azpitoluekin jatorrizko bertsioa** ikusi dezake, eta nahi duenak bikoiztuta. Ez dago arazorik”. Haurren kasuan, adibidez, oso txikiak direnean ez dakite irakurtzen, eta aukera bakarra bikoiztutako marrazki bizidunak ikustea da.

### Euskarara bikoiztutako zinema

**Azpitituluak** jarritako edo **bikoiztutako ikus-entzunezkoen** arteko gatazkaz gain, Crujeirasek askotan entzun izan dugun galdera bat egin digu: “Nork ikusten du euskarara bikoiztutako zinema? Nire ustez, kontua ez da ikustea nor joaten den. Kontua da guri zer-nolako materiala iristen zaigun bikoizteko, eta zer dagoen jada kalean. Adibidez, film bat gaztelaniaz bikoiztu badute, eta handik sei hilabetera euskarara bikoiztuz gero, nork ikusiko du?”.



Horrez gain, euskarara bikoiztutako zenbait produktutan egileei "hizkuntza ortopedikoa" edo naturala ez dena" erabiltzea leporatzen zaie. Horren aurrean, Gamizek "hausnarketa" bat egiteko garaia dela esan digu, bere ustez hizkuntza ortopedikoa izatea bikoizleen lan-egoera prekarioari zuzenean lotuta baitago: "Kalitatezko bikoizketa bat bultzatu behar dugu, arrotza egiten ez den hizkuntza batekin, ondo egokitutako eta itzultako materialarekin... Kontziente gara egiten dugun lana arrotza dela jende askorentzat. Ordu gehiagoko lanaldiak nahi ditugu, euskaraz gehiago bikoiztu nahi dugu; baina kalitatezko lana izatea nahi dugu. Horixe egiten ez dugun bitartean, jendeak ez du euskarazko produkturik kontsumituko".

Prekaritatea da erantzuleetako bat Crujeirasen ustez: "Euskarazkoa ez dela sinesgarria esaten dute askotan, baina itzuli edo egokitu behar duenak ez badu nahikoa denbora horretarako... Inbertitzen den diruak badu zeresana". Gamiz ere ados dago: "Testua ondo itzulita eta egokituta badago, gure lana asko erraztuko du eta sinesgarritasuna emango dio ikus-entzunezkoari".

#### 4- Orain lotu hitzak dagokien definizioarekin:

##### DEFINIZIOA

1. MARRAZKI bizidunetan, telesailetan edo filmetan jatorrizko ahotsak ordezkatu, eta beste hizkuntza batean gainean grabatutako bertsioa.
2. MARRAZKI bizidunetan, telesailetan edo filmetan entzuten dena idatziz emateko erabiltzen den tresna.
3. FILMAK, telesailak edo filmak izan daitezke. Ikusmenaren eta entzumenaren erabilerari deritzona.
4. Bikoiztaileek lan egiten duten espazioari deitzen zaio.
5. NATURALA ez den hizkuntza da, arrotza egiten zaiguna.
6. Ikus-entzunezkoa sortu den hizkuntzan egotea.
7. Ikus-entzunezkoaren hizkuntza bertsio berriak prestatzeko ematen diren pausoak dira.

##### ZER

Hizkuntza Ortopedikoa

Azpitulua

Testuen itzulpena eta egokitzapena

Irakurketa-estudioa

Bikoiztutako bertsioa

Jatorrizko bertsioa

Ikus-entzunezkoa

5- Bikoizketari eta azpituluei buruz jardun dugu ariketa-sorta osoan zehar. Eztabaidatu ikaskidearekin:

Zein da baliabide egokiena hizkuntzak ikasteko garaian: jatorrizkoa, bikoiztua ala azpitulatua?  
Aztertu eredu bakoitzaren alderdi onak eta txarrak zure esperientzian oinarrituta.



# ERANTZUNAK

## Bideoa ulertu

|  | EZ | BAI |
|--|----|-----|
| -Ahotsa  | ✓  |     |
| -Bikoiztaile graduiko ikasketak unibertsitatean egitea | ✓  |     |
| -Interpretazioa  |    | ✓   |
| -Hainbat hizkuntzatan hitz egitea                      | ✓  |     |
| -Teknika   |    | ✓   |
| -Eginez ikasten den ofizioa da, pixkanaka              |    | ✓   |
| -Jatorrizko bertsioa eraldatzeko baliabideak izatea    | ✓  |     |
| -Ahotsa kokatzen ikasi behar da                        |    | ✓   |
| -Jatorrizko bertsioarekin leiala izatea                |    | ✓   |
| -Hainbat erregistro egiteko gaitasuna                  |    | ✓   |
| -Norberaren erregistroa ongi menderatzea               | ✓  |     |
| -Gorputzaren kokapena                                  | ✓  |     |

## Irakurri testua

1. Bikoiztutako bertsioa
2. Azpтитuluak
3. Ikus-entzunezkoa
4. Irakurketa-estudioa
5. Hizkuntza ortopedikoa
6. Jatorrizko bertsioa
7. Testuen itzulpena eta egokitzapena